


## Azazeta-Adana

Mendialdetik Lautadara, baselizak pagaditik zehar




### Kokapena

Bost udalerriren eremuak zeharkatzen ditu ibilbideak: Arraia-Maeztu (Azazeta), Bernedo (Berrozi inguruak), Alegria-Dulantzi (San Bitor eta mendatearen arteko pista), Iruraiz-Gauna (San Bitor, Jauregi) eta Donemiliaga-San Millan (Gipuzuriko Santa Isabel, Ullibarri-Jauregi eta Adana). Lehenengo zatian, Berron ibaia jarraitzen du El Salto de Agua izeneko tokiraino, erreka iturburuak daukan tokitik oso gertu. Bigarren zatian Gasteizko edo Iturrietako Mendien Ipar magaletik behera, pagadia eta majadatik, Santa Isabel erreka jarraitzen da.

### Toki interesgarriak

**San Bitor:** Araban XI. mendean erdialdetik aurrera gurtzen zuteneko berriak badaude. 1587an santuaren gorputz ustelgabea aurkitu zuten, eta buruherzurra XVII. mendeko zilarrezko erlikario barroko batean kontserbatzen da. Buruherzurak gaitzak sendatzeko gaitasuna dueneko sinismenak gaur arte iraun du. Kaskahezuraren gainetik ura bota eta iragazten da soroak bedeinkatu eta buruko minak sendatzeko. Santua Mendialdean, Lautadan eta Nafarroako mugan gurtzen dute, hortik kanpo ia ezezaguna delarik. Deportivo Alaves taldearen patroia da, Gauna herrikoa ere bai.



**Gipuzuriko Santa Isabel:** Adana, Azilu eta Jauregiko Lauribaso izeneko baso komunean dago. Toki zoragarri eta izkutua dugu hau, Gipuzuri herri desagertua hemen egon omen zen. Hitzegitea kostatzen zaien umeen defendatzailea eta eskualde osoan oso maitea. Erromeria irailan egiten da. Tenplua oso ximplea, jatorri erromanikoa du eta leiho handia, harburutxoan lerro bat eta aurrealde zistertarra dira aipagarriena.



## IBILBIDEA

**0 Km. / 0 or 0'** **Azazeta** herrian hasiko da ibilbidea. Enparantzara abiatuko gara eta 10 zenbakidun etxea ezkerrean utziz, errepiderantz joango gara. Ailegatu baino lehenago, ezkerretara joko dugu, ia ikusten ez den belar bidexka batetik. Bide estu honetatik herritik aterako gara. Lehenengo zati honetan metalezko ate batzuk gurutzatu egin beharko ditugu. Errepide zaharraren errebuelta batekin topo egitean Mendebalderako norabidea duen Majadarako bidea agertuko zaigu. Bide atsegina da, ebraz hartuko dugu. Berehala, burdinezko ate bat gure eskuinean utzi eta 50 metrotara pagadian Ur Jauzia entzun ahal izango dugu, jauzi apala baina Berron ibaiaren jaiotza da. Aurrera jarraituko dugu, bide argiena jarraituz. Une batean pagadiaren argiune batean pista zabaldu eta erdi desagertzen da. Baina guk 10 metro lehenago topatuko dugun bidea, gure eskuinean, hartuko dugu. Erroturoa ikusiko dugu eta pistatik jarraituko dugu. Pistak zelai batera eramango gaitu eta han, gora Berroziko errepiderantz eramango gaituen adarra hartuko dugu. Ekialdeko norabidea hartuta, errepidearen paraleloan, **Azazeta mendatearen goiko partera** helduko gara. .

**3,68 Km. / 1h. 00'** Kontu handiz, mendateko errepidearen beste partera gurutzatu beharko dugu ibilbidea jarraitzeko. Seinale batean idatzita "*San Vitor*" ikusiko dugu. Norabide hau jarraituz, metalezko ate pare bat gaindituko ditugu eta pagadi zoragarri batean sartuko gara. Pista honetatik, **San Bitor basilizara** helduko gara arazorik gabe. Hemen eguraldia uzten badigu (eta ez badigu uzten baita ere), hamaiketakoa egingo dugu. Bokata jaisteko, berriro ekingo diogu ibilbideari. Basiliza ezkerrean utziko dugu eta, iturrietara doan bidetik hasiko gara berriro ibiltzen. Hemendik iturri pare bat ikusteko aukera izango dugu. Lehengora joateko, hau da, "herradura iturria", bidetik atera egin beharko dugu ezkerretik. Gerorago, ia pistan bertan dagoen Mandioko iturriarekin topo egingo dugu. Hemendik aurrera bidea ez da hain garbi azaltzen. Gure aurrean lur irristadura izan daitekeena agertuko da. Leku hau gainditzeko, eskumatik goraka joaten den bidexka hartu behar da.

**5,5 Km. / 1h. 25'** Eremu honetan, bidea oso polita da, pagadi itzaltsuak batzuetan hormak ikusten uzten baitigu. Erpin geodesiko batera helduko gara. Hemendik aurrera landaretza aldatuko da erabat, orain pagadi eta ameztiaren artean dagoen belarditik jaitsiko gara. Berehala, gure eskuinean **Gipuzuriko Santa Isabel basiliza** agertuko da, apala beharbada, baina leku zoragarri batean kokatua. Oraindik, *inguruetako* jendeak erromeria bat egin ohi du bere omenez.

**8 Km. / 2h. 00'** Eskuinerantz ateratzen den pista saiheztuz, behera joaten jarraituko dugu. 800 metro egin eta gero, **Rotalde** baltsa helduko gara, zein ezkerreko ertzetik inguratuko duguna. Desbideraketarik hartu gabe, "*Vasco-navarroko*" bide berdera aterako gara Puntu honetan, ezkerretara joango gara, baina bakarrik 700 metro egin beharko dugu bide berdetik. Gero, egurrezko seinale bati kasu egiten, eskumara hartuko dugu irteera bukatzeko lekura heltzeko, hau da

**11,70 Km. / 3h. 10'** **Adana.**